

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



■ BIGARREN ESKUKO  
AZOKA

## Ikasturteko bigarrena, etzi

Hileko bigarren larunbata denez, Bigarren Eskuko Azoka egingo dute etzi. Urbieta kalean edo Atsegindegin izango da, ohi bezala, eguraldiaren arabera; goizeko 10:30etan hasi eta eguerdiko 13:30ak arte. Postua jarri nahi izanez gero, telefonoz deitu behar da aurretik: 682 741 366. ||

■ ERROMERIA

## 'Jeiki Hadi' taldea, beste behin

Urriko zitari jarraituz, erromeria antolatu du San Joan Konpartsak larunbaterako. Jeiki Hadi taldeak musikatuko du, beste behin. Arratsaldeko 18:30etan hasita izango da, Plaza Berrin edo Atsegindegin; hau ere, eguraldiaren arabera. ||

■ MENIDIRIZ MENDI

## Apuntatzeko aukera, gaur arte

Mendiriz Mendi elkartearen Mendizale Astearren barruan, 39garren Argazki Lehiaketa egingo dute aurten, eta parte-hartzaileek gaur izango dute azkeneko eguna, argazkiak aurkezteko. Edonork, bazkide izan ala ez, aurkeztu ditzake. Gaia librea da, eta gutxienez 3 argazki aurkeztu behar dira, eta gehienez, 4. Bulegora eraman behar dira CD edo USB batean, 20:00etatik 21:00etara. ||

■ ERAKUSKETA

## Eskultura eta pintura, gaurtik

Gaurtik eskultura eta pintura erakusketa jarriko du Fernando Santibañezek. Biteriko erakusketa aretoan ikusi ahal izango da, hilaren 24ra arte. ||

■ PORTU AUZOA

## Egun haundia, biharkoa

Portu Eguna ospatuko dute bihar auzotarrek. Tortilla txapelketa, bazkaria eta dantzaldia izango dira, eguerdiko 12:00etatik, arratsaldera arte. ||

■ HITZ-ANDANA

## Nazioarteko inprobisatzaileek bat, Biterin

Bertsolaritzarekin, payadarekin eta punto cubanoarekin gozatu ahal izango dute gaur hernaniarrek. Iluntzeko 20:00etan hasita izango da hori, Biteri kultur etxean. Sarrera bertan erosi ahal izango da.

SEI geldialdi egingo ditu Euskal Herriari Nazioarteko Inprobisatzaileen Birak, eta horietako bat izango da gaur Hernanin eskainiko dutena. Iluntzeko 20:00etan hasita izango da emanaldia, Biterin. Sarrera egunean bertan erosi ahal izango da, 7,5 euroren truke.

Hitz-andana egitasmoaren barruan antolatu du emanaldia Udalak, Mintzola Ahozko lantegiarekin eta Lanku Kultur Zerbitzuekin elkarlanean. Bertan, bertsolaritzak bat egingo du Argentinako payadarekin eta Kubako punto cubano delakoarekin.

### Lujanbio eta Soto, Euskal Herriak

Hernaniren kasuan, Maialen Lujanbio eta Julio Soto bertso-

Lujanbio eta Soto, Araceli Argüello eta Tomasita Quialarekin arituko dira.

lariak arituko dira. Eta haiekin batera izango dira Araceli Argüello payadore argentinarra eta Tomasita Quiala repentista kubatarra. Era berean, Iker Iriarte arduratuko da saioa gidatzeaz.

### Beste hainbat esperientzia

Ez da aurreneko aldia halako esperientzia batek Hernani duena geltoki. Biterin bertan egin zuten bat hainbat inprobisatzaileek 2016an, *Euro-pa bat-batean* topaketaren barruan. ||



Goran: Soto eta Lujanbio; behean: Quiala eta Argüello.

■ UDALA ZERBITZU SOZIALAK

## Kalean bizi direnen kontakatarako, deia

Hilaren 18tik 19rako gauean egingo dute kontaketa, Kale Gorrian ikerketarekin bat eginez. Parte hartu nahi duenak Zerbitzu Sozialetara jo behar du: 'zerbitzuzozialak@hernani.eus' / 943 55 78 54.

BESTE behin, bigarren urtez egingo du bat Hernaniko Udalak Kale Gorrian lan-taldearen ikerketarekin; hau da, etxerik gabeko pertsonen egoerari buruzko datuak azaltzen dituen lanarekin.

Hori horrela, kalean bizi direnen kontaketa egingo dute, eta horretarako, dagoneko jarri dute data: hilaren 18tik 19rako gauean egingo dute.

«Herrian dagoen errealitatea ikusi» ahal izango dute herritarrek, gau horretan.

### Herritarrei deia, parte hartzeko

Udalak azaldu duenez, helburua da «herrian dagoen errealitatea ikusi, etxerik gabeko

pertsonen arazoekiko elkartzuna eta atxikimendua sortu eta udal politikak horren arabera egokitzea».

Errealitate hori ezagutzeko aukera luzatu nahi diete, hain zuzen, herritarrei; hilaren 18tik 19rako gauean egingo duten zerbaketan parte hartzera gonbidatu ditu Udalak. Interesa duenak, Zerbitzu Sozialetara jo beharko du: zerbitzuzozialak@hernani.eus

helbide elektronikoaren bidez edo 943 55 78 54 telefonoan.

### Bi urtero

Kale Gorrian ikerketaren barruan, bi urtero egiten da gaueko zenbaketa. Duela bi urte, 2016an, hartu zuen parte Hernanik aurreneko aldiz, 32 boluntariorekin. Hernanirekin batera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako beste 25 herri ere hartzen dute parte. ||

**AKELENEA**  
Erebetegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Menua  
Foie Micuit  
Langostino entsalada  
Onddo eta ahate ojaldrea  
Arraia  
Haragia  
Postrea, ogia, kafea

Koldo eta fina

25€ (BEZ barne, edaria aparte)  
Enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

**ITXASPE**

Arrandegia  
Antziola 5  
Tel.: 943 320 365  
Mobila: 665 735 224  
20120 Hernani

**Samitek**  
Balago makinaren salmenta eta mantentzeak  
samitek@samitek.es  
www.samitek.es

TOSHIBA

INFORMATIKA  
SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa  
Ez galdu paperak

**Tripontzi jatetxea**

PINTXOAK  
RAZIOAK  
ENTSALADAK  
PLATER KOMBINATUAK  
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI  
943 555 724



☎ | TAXIAK: 943 550093 | UDALZAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSA: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hemani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hemani) 943 551793 / Gaeuz: Castilla Urbieta, 7 (Hemani) 943 552941

**EGURALDIA**  
**GAUR** Goizean, hego-haizeak gogor joko du, ateri eutsiko dio eta giroa epela izango da. Eguerditik aurrera, aldaketa etorriko da: euri kontuak bueltatuko dira eta freskatu egingo du. **Min.15° / Max.23°**  
**BIHAR** Hobera egingo du eguraldiak bihar, giroa argia izango da eta epeldu egingo du. Hego-haizeari esker, gainera, tenperaturak gora egingo du. **Min.14° / Max.26°**  
(euskaime)

## I GREBA DIA% DENDAK

# Greba DIA%k gaur, «esplotazioa eta prekaritatea» salatzen

Egun osoko greba egingo dute Gipuzkoako DIA% denda guztietan; elkarretaratzea egingo dute 12:30etan Donostiako Artzain Onaren plazan.

EGUN osoko greba egingo dute gaur Gipuzkoako DIA% dendetako langileek. Hala iragarri zuten aurreko ostiralean Astigarragako DIA%ren aurrean egindako agerraldian: «Langile Komiteko kideok enpresan bizi dugun erabateko esplotazio eta prekaritatearen aurrean egun osoko greba antolatu dugu».

Bertan bat egin zuten ELA, LAB, UGT eta CCOOren ordezkariak, eta grebaren arrazoiak azaldu zituzten: «DIA%ko langileok denbora asko daramagitu prekaritate-egoera hau sufritzen. Langileak eta Komitea bera, behin eta berriz, gutxietsi eta mespretxatuak gara enpresaren aldetik. Inolako aurreabisurik gabe aldatketak egiten dituzte, gure bizitzak gauetik goizera baldintzatuz. Gure lan zentroak aldatzen dituzte, askotan lekualdaketan kilometro asko egitera behartuz. Antolakuntza aldatketak maiz egiten



Aurreko ostiralean eskaini zuten prentsaurrekoa, Astigarragako DIAn.

dituzte, esate baterako, ordu-egienak, inolako aurre abisurik gabe eta gure bizitzak berriz antolatzera behartuz».

Horrez gain, diotenez, «langile falta nabarmena eta orokorra da; eta kaleratzeak ohiko politika dira, berdindio izan edo 10 urte eraman enpresan, ezerk ez du bermatzen gure lanpostuan jarraitzea».

Eta hori guztia borobiltze-

ko, «DIA&GO denda formatua Euskal Herrira heldu da. Bizkaian ireki dute aurrenekoa, 08:30etatik 23:00etara arte irekiko dute, langileen kontziliazio eskubidea urratuz».

Horregatik guztiagatik, eta «enpresaren pasibotasuna ikusita» egingo dute greba gaur. Elkarretaratzerako deia ere egin dute: Donostiako Artzain Onaren plazan egingo dute bat, eguerdiko 12:30etan. ||

## I EH BILDU PRENTSA-OHARRA

# Autobus-zerbitzuetan «sekulako murrizketak» salatu ditu EH Bilduk

Azaldu dutenez, urtarriletik aurrera ezarriko dira aldatketak: «herritarren interesak, interes ekonomikoen gainetik jarri behar dira», gogorarazi dute.

IRAILAREN 27an argitaratu zuten Foru Aldundiak Buruntzaldeako autobus-zerbitzuaren esleipen-deialdia. Bertan, Hernaniko EH Bilduk salatu duenez, «sekulako murrizketak» egin dituzte, «EAJ-PNV eta PSE-PSOE beraien eskuineko politika atzerakoiarekin tematu» ondoren.

Urtarriletik aurrera, martxan Alderdi abertzaleak dio «zentzugabekeria» dela urtarriletik aurrera martxan jarriko dutena; eta salatu egin du «basakeria hau». Eta adibideak jarri dituzte: «G1 autobusean (Aietekoa, hain zuzen ere), astegunetan zerbitzua %4a murrizten dute. Hau da, autobusen maiztasuna gaur egun 15 mi-

nuturokoa bada, ordu gehienetan 30 minuturokoa izatera pasako da».

Asteburutan, egoera «larriagoa» izango dela diote: «larunbatetan [...] murrizketa %50ekoa da». Eta igandeetan, «zerbitzua %30ean gutxitu nahi dute, eta goizeko 12:00ak arte autobus bakarra izango da, orduko». Andoingo autobusean egoera «antzekoa» izango dela diote.

### Zerbitzu publikoa

EAJ-PNV eta PSE-Eeri gogorazi diote «zerbitzu publiko bati buruz ari garela eta beraz, herritarren interesak, interes ekonomikoen gainetik jarri behar direla».

Eta jarraitu dute: «zerbitzu

publikoak murrizteak, autobusak murrizteak, premia haundiena dituzten herritarrek kaltetzen ditu». Europara begira ere jarri dira: «garraio publikoa bermatu eta hobetu behar da. Garraio publikoaren aldeko apustua egiten ari da Europa osoa; hori da bidea, eta ez PSOEek eta EAJ-PNVk hartu dutena».

EH Bilduk dio «ahalegin guztia» egingo dutela «murrizketa hauek salatzen, eta geldiarazteko».

### Mobilizazioak, goraipatu

Era berean, «eskertu eta goraipatu» egin dituzte azken hilabetetan langile, erabiltzaile eta herritarrek egindako mobilizazioak. ||

## I OSIÑAGA AUZO ELKARTEA

# Afari berezia, 'Artantxuriketan'

Hilaren 27an izango da, iluntzeko 20:00etan hasita, Osiñagako Iparragirre sagardotegian.

PLAN berezia eskainiko dute Asmo Argia Osiñagako Auzo Elkarreak eta Iparragirre sagardotegiak hilaren 27an. Iluntzeko 20:00etan hasita, afariak eta Aranoko Ansa ama-ahizpen ARTANTXURIKETAN emanaldiaz gozatzeko aukera izango da. Prezioa: 26 euro. Hilaren 21era arte erreserbatu ahal izango da, 943 55 03 28 telefono zenbakian.

### Arta zuriketa, antzeztua

Aurrena, Arantza, Ainhoa eta Maider Ansa ahizpek eta Maria Jesus Zugarramurdi haien amak antzeztutako saioarekin gozatu dute bertaratutakoek, eta ondoren, parrilada dastaketa izango

Baserriko sukaldean arta zuriketa antzeztuko dute afariaren aurretik.

dute, Baserria KM0ko jakiekin osatuta. Kafea ere eskainiko dute, gero.

«Baserriko sukaldean arta zuriketa antzeztuz, kantu eta kontakizunen saioa» da ARTANTXURIKETAN. Hain zuzen, baserriko arratsalde bat antzeztzen dute, familia eta auzokoak elkartu eta solasaldi bizia sortzen dute elkarrekin, artoa zuritzen duten bitartean. ||

## I HUNTZA TALDEA

### Publiko moduan ateratzeko, herritar bila

Bideoklip berria grabatu du Huntza taldeak bihar Lasarte-Oriako hipodromoan, eta publiko moduan agertuko den jendea behar dute horretarako. Adin guztietako jendea behar dutela adierazi dute: aiton-amonak, helduak, gazteak, umeak... Arratsaldeko 16:00etan irekiko dituzte ateak, eta grabazioaren ondoren, jatekoa eta edatekoa eskainiko dute. Joan nahi duenak, [labur.eus/zqfkh](http://labur.eus/zqfkh) estekan dagoen orria betetzeko eskatu dute; dena den, egunean bertan gerturaten dena ere, ongiatorria izango dela adierazi du taldeak. ||

## I URUMEA HERRI GUNEA

### Gune ez-mistoaren bilera, gaur

Emakumezkoen gune ez-mistoaren bilera egingo dute gaur Urumea Herri Gunean, haiek azaldu bezala, «ildo estrategikoetan oinarrituta». Arratsaldeko 19:00etan izango da, Herri Gunean bertan. ||

## I KONTRAKANTXA GAZTETXEA

### Tour-a, gaur; Herri Eskolak, bihar

Irekiera Astea burutzen ari da aste honetan Kontrakantxa gaztetxea. Gaur, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara Gaztetxea ezagutzeko tour-a eta pintxopotea egingo dituzte. Bihar, Ikasle Abertzaleen eskutik, Hispanitate Egunari intsumisioa egingo diote, eta Herri Eskolak izango dituzte, 10:00etan. Bertan, genero auziaren eta autodefentsa sareen inguruko hausnarketa egingo dute. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Onddi Akademia:** LH, DBH eta Baxilerrera laguntza, maila berdineko talde murriztuak. Asteleheneetik Ostiralerara 15:30 - 20:00. Urbieta kalea 7. Deitu: 688 71 95 71

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)